

2025-26 ikasturteko ikastetxeen proiektu deialdiaren ARAUDIA

REGLEMENT Appel à projets 2025-26 destiné aux établissements scolaires

Article 1 : Objectif de l'Appel à projets

L'Appel à projets destiné aux établissements scolaires primaires et secondaires a pour objectif de soutenir financièrement les projets **entièrement en langue basque** portés par les équipes enseignantes et répondant à l'objectif de **valoriser et susciter la pratique de la langue basque (production orale et/ou écrite) par les élèves**, de manière à consolider par l'usage l'apprentissage de la langue ;

Ce dispositif permet également, le cas échéant, d'accompagner les élèves dans la liaison CM2>6ème ou 3ème>2nde afin d'améliorer la continuité dans l'enseignement bilingue.

Ce règlement définit les modalités de candidature et d'affectation des aides accordées dans le cadre de cet Appel à projets.

Article 2 : Eligibilité des candidats

L'Appel à projets est ouvert aux établissements de l'enseignement primaire et secondaire du Pays Basque de France offrant un enseignement bilingue françaisbasque.

En pratique, les porteurs de projets sont :

- l'établissement scolaire représenté par son directeur, principal ou proviseur, pour l'enseignement public;
- l'OGEC de l'établissement scolaire pour l'enseignement catholique ;
- l'association locale pour les ikastola.

Pour bénéficier d'une aide financière ou de son versement, l'opérateur ne devra avoir aucune procédure en cours avec l'Office Public de la Langue Basque, relative à la production de pièces administratives ou à des remboursements dus sur des projets antérieurs.

Article 3 : Eligibilité des projets et des financements

Les projets doivent répondre aux critères d'éligibilité suivants :

 faire l'objet d'un dossier de candidature complet adressé dans les délais indiqués (voir art. 4)

1. artikulua: Proiektu deialdiaren helburua

Lehen eta bigarren mailako ikastetxeei zuzenduriko dispositiboaren xedea irakasleek eramanak dituzten euskara hutsezko proiektuak diruz laguntzea da, eta ikasleek euskararen praktika (ahozko eta/edo idatzizko ekoizpena) balioesteko eta sustatzeko helburuari erantzutea, erabileraren bidez hizkuntzaren ikaskuntza sendotzeko;

Gisa berean, egitasmo honek, behar izanez gero, ikasleei **CM2>6. edo 3.>2.** loturan laguntzeko aukera ematen du, irakaskuntza elebidunaren jarraipena hobetzeko.

Araudi honek finkatzen ditu deialdi honetan parte hartzeko baldintzak eta urratsak, baita dirulaguntzen finkatzeko jokabideak eta moldeak ere.

2. artikulua: Zein dira kandidatu hautagarriak?

Proiektu deialdia irekia da irakaskuntza elebiduna edo murgiltze sistema proposatzen duten Ipar Euskal Herriko lehen eta bigarren mailako ikastetxe guziei.

Praktikan, hona zoin izaten diren proiektu eramaileak:

- ikastetxea, bertako zuzendariak ordezkatua, irakaskuntza publikoarentzat;
- ikastetxeko OGEC-a, irakaskuntza giristinokoentzat;
- ikastolako elkartea, ikastolentzat.

Dirulaguntza baten ukateko, ezinbestekoa da proiektu eramaileak ez dezan ukan EEPrekin zuritu gabeko aitzineko proiekturik, izan dadin administrazio agiri edo paper batzuen eskasiaz, edo diru-itzultze baten beharragatik.

3. artikulua: Zein dira proiektu eta gastu hautagarriak?

Proiektuak hautagarriak izateko, hona kontuan hartu beharreko irizpideak:

 eskabide txostena behar bezala osatu eta helarazi epeak errespetatuz (ikus 4. art.)

- se dérouler au cours de l'année scolaire 2025-26
- dans le cas où le même projet aurait été présenté dans le cadre du dispositif de financement de projets culturels de la Direction des services de l'Éducation nationale des Pyrénées-Atlantiques, du Conseil départemental, du Conseil régional ou de la DRAC, ou dans un dispositif aidé par la CAPB, faire figurer dans le budget prévisionnel les sommes demandées dans ces dispositifs
- présenter un budget prévisionnel cohérent et équilibré :
 - autofinancement à hauteur de 20% minimum ;
 - autres financements;
 - les dépenses éligibles sont présentées sur le budget prévisionnel du dossier de demande de financement;
 - dans le cas des projets avec nuitées, le budget doit faire ressortir le coût des accompagnateurs qui ne doit pas dépasser 10% du coût global du projet.

Ne sont pas éligibles :

- les dépenses d'investissement (ex. : matérie informatique, audiovisuel ou autre...);
- les dépenses de fonctionnement, d'achat de fournitures scolaires ou de petit équipement (ex. : colle, papier, photocopies ...);
- les dépenses liées à l'achat de matériel scolaire (ex. : livres, DVD...);
- les cadeaux.

- proiektua 2025-26 ikasturtean obratu
- proiektu bera Pirinio Atlantikoetako Hezkunde nazionaleko zerbitzuen zuzendaritzak, Departamendu Kontseiluak, Eskualdeak edo KAEZak, antolatu kultura saileko proiektu deialdian aurkeztua bada, Dispositibo hauetan eskatzen diren kopuruak aintzinkontuan agerrarazi
- aitzinkontu koherente eta orekatua presentatu:
 - autofinantzaketa % 20koa izan gutienez;
 - hautagarri diren gastuak dirulaguntza eskabide txosteneko aitzinkontuan agertu;
 - gaualdiekin diren egonaldientzako, laguntzaileen kostua agerrarazi aitzinkontuan eta proiektuaren kostu orokorraren % 10 ez gainditu.

Honako gastuak ez dira hautagarri:

- inbertsio gastuak (adibidez: material informatikoa, ikus-entzunezkoa edo beste...);
- funtzionamendu gastuak; eskola hornidurei dagozkien gastuak (adibidez: kola, papera, fotokopiak,...);
- ikasmaterialari dagozkion gastuak (adibidez: liburuak, DVD);
- opariak.

Article 4 : Modalités de candidature

Le nouveau formulaire de candidature est envoyé aux établissements et disponible pour téléchargement sur le site internet de l'OPLB : **www.mintzaira.fr.**

Ce document doit être complété <u>dans les deux langues</u> (basque et français), puis **retourné par mail** à <u>ipd@mintzaira.fr</u> avec signature et cachet du porteur du projet pour le <u>27 juin 2025 dernier délai, accompagné de tous les justificatifs demandés.</u> Si le formulaire est incomplet et le responsable du projet injoignable pour pouvoir le compléter entre le 30 juin et le 4 juillet 2025, la demande ne sera pas traitée. **Aucun dépassement de ce délai ne sera accepté.**

Article 5 : Examen des projets

L'ensemble des dossiers complets fait l'objet d'une instruction par un comité technique associant les services de l'OPLB, du Rectorat de Bordeaux, de la Direction des services de l'Éducation nationale des Pyrénées-Atlantiques, de la Direction de la Culture du Département des Pyrénées-Atlantiques, ainsi que des

4. artikulua: Nola egin proiektu bat aurkezteko?

Eskabide txosten berria ikastetxeei igorria da eta EEPren webgunean (www.mintzaira.fr) deskargatzeko moduan da.

Eskabide txostena, <u>bi hizkuntzetan</u> (euskaraz eta frantsesez) osaturik eta proiektuaren eramaileak izenpeturik (izenpea eta zigilua), <u>ipd@mintzaira.fr</u> helbidera e-mailez helarazi behar da, <u>2025eko ekainaren 27ko, eskatutako egiaztagiri guziekin.</u>

Eskabide txostena osatu gabe bada, eta 2025eko ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean osatu ahal izateko proiektuaren arduradunarekin ezin bada harremanetan, ez da eskaera tratatuko.

Ez da onartuko epe hori gainditzea.

5. artikulua: Proiektuen hautaketa

Txosten osatu guziak elkarrekin aztertuko ditu batzorde teknikoak, EEPko zerbitzuek, Bordeleko Errektoretzak, Pirinio Atlantikoetako Hezkuntza Nazionaleko Zerbitzu Zuzendaritzak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kultura Zuzendaritzak eta hiru sareetako aholkulari pedagogikoek osatzen dutena.

conseillers pédagogiques de chaque filière d'enseignement.

Les dossiers arrivés hors délai, non complets, ou non remplis dans les deux langues (basque et français), ne seront pas examinés.

<u>Epetik kanpo heldu diren txostenak eta bi hizkuntzetan</u> (<u>euskaraz eta frantsesez</u>) behar bezala osatuak ez direnak ez dira aztertuak izanen.

Article 6 : Critères d'évaluation pédagogique

Le dossier de candidature doit permettre au comité technique d'évaluer la pertinence des projets présentés sur la base des critères suivants :

- dimension de la pratique linguistique du projet au regard de la production orale/écrite et l'interaction des élèves avec des locuteurs (autres élèves, adultes) en langue basque et, le cas échéant, au bénéfice de l'accompagnement des élèves dans la liaison CM2>6^{ème} ou 3^{ème}>2^{nde} dans l'enseignement bilingue;
- pertinence de l'évaluation envisagée ;
- implication des enseignants dans le projet.

Chaque projet sera soit retenu soit écarté par le comité technique au regard des critères définis ci-dessus.

L'adéquation entre le projet présenté et le projet réellement réalisé sera aussi évaluée par le comité technique sur la base du bilan fourni en fin d'année, avant versement de l'aide.

<u>L'Appel à projets étant renouvelé chaque année, un projet récurrent doit être argumenté comme un projet nouveau.</u>

Article 7 : Hauteur de l'aide financière

Les projets retenus seront financés à hauteur de 70% du coût total des dépenses éligibles dans la limite de :

- 400 € pour les projets au sein de l'établissement ou les sorties sans nuitée,
- 500 € pour les séjours avec nuitée(s).

Dans un souci de meilleure répartition de l'enveloppe, l'aide de l'OPLB sera circonscrite à un projet par élève, dans la limite maximale de 2.000 € par établissement.

Article 8 : Règle relative au cumul avec d'autres aides

La subvention de l'OPLB est cumulable avec toute autre aide publique (CAPB, DRAC, Département, Région), dans la limite du coût global du projet et le respect de l'autofinancement à 20% minimum. Toutes les sollicitations d'aides publiques doivent figurer dans le budget prévisionnel. Aussi, si une aide sollicitée par ailleurs ne figure pas dans le budget prévisionnel, celleci sera automatiquement déduite du montant sollicité à l'OPLB. Aussi, l'aide de l'OPLB viendra compléter le

6. artikulua: Ebaluazio pedagogikoaren irizpideak

Eskabide txostenari esker batzorde teknikoak proiektuaren interesa eta egokitasuna ebaluatuko du ondoko irizpideak oinarritzat hartuz:

- proiektuaren hizkuntza-praktikaren dimentsioa, ahozko ekoizpenari eta ikasleek euskarazko hiztunekin (beste ikasle batzuk, helduak) duten elkarreraginari dagokienez, eta beharrez, ikasleei ekarri laguntza CM2>6. edo 3.>2. lotura egiteko, irakaskuntza elebidunean segi dezaten;
- aurreikusi ebaluazioaren egokitasuna;
- irakasle taldearen inplikazioa proiektuan.

Proiektu bakoitza ebaluatua izanen da gorago zerrendatu irizpideen arabera.

Aurkeztutako proiektuaren eta egiazki egin den proiektuaren arteko egokitasuna ere batzorde teknikoak ebaluatuko du, urte hondarrean emaniko bilanean oinarrituz, diru-laguntza ixuri aitzin.

Proiektu deialdia urte guziz zabaldua denez, urte batetik bestera berritzen diren proiektuak, proiektu berri bat balitz bezala argumentatu behar dira.

7. artikulua : Diru laguntzaren heina

Hautatu proiektuak % 70-eko heinean lagunduko dira, muga hauekin:

- 400 € ikastetxean eginiko proiektuentzat edo etxetik kanpo lo egin gabeko ateraldientzat,
- 500 € egonaldientzat (etxetik kanpo lo eginez).
 Dispositibo honen aurrekontu orokorra hobeki banatzeko, EEPren diru-laguntza proiektu bati mugatua izanen da ikasle bakoitzeko, gehienez 2.000 €ko mugarekin ikastetxe bakoitzeko.

8. artikulua: Beste diru laguntzekiko metaketaren araua

EEPk eman dirulaguntza beste edozein erakunde publikok (EHE, KAEZ, Departamendua, Eskualdea) eman laguntzarekin metatzen ahal da, proiektuaren kostua gainditu gabe eta gutxienezko % 20eko autofinantzaketa errespetatuz. Galdegin izan ziren eskaera guziak aurrekontuan izan behar dira. Horregatik, beste erakundearen dirulaguntza aurrekontuan automatikoki agertzen ez bada, EEPri galdegin dirulaguntzatik kendua izanen da. Era berean,

manque de financement du projet après cumul de l'autofinancement et des autres financements, toujours dans la limite définie à l'article 7 du présent règlement.

Article 9 : Obligations des bénéficiaires

Les bénéficiaires des aides affectées dans le cadre de cet Appel à projets ont pour obligation :

- d'accepter l'aide affectée : l'aide sera considérée acceptée, si 15 jours après avoir reçu confirmation de cette aide, le chef d'établissement ne fait pas connaître son refus de la décision ;
- d'utiliser l'aide dans le respect des objectifs pour lesquels celle-ci est accordée;
- de communiquer le soutien de l'Office Public de la Langue Basque sur tout support de promotion et de communication (affiches, dépliants divers, intervention dans la presse...) concernant les projets et activités aidés;
- de placer ses activités sous sa responsabilité exclusive, en souscrivant tout contrat d'assurance de façon que la responsabilité de l'OPLB ne puisse être engagée;
- de communiquer, dans les meilleurs délais, toute modification d'ordre administratif (n° de tél, adresse de courriel ...).
- de communiquer, dans les meilleurs délais, toute modification d'ordre pratique liée à la réalisation du projet et due à des facteurs non maîtrisés par les porteurs de projet (changement d'intervenant pour indisponibilité de celui-ci, de destination de sortie, de calendrier...), pour que l'OPLB puisse considérer le maintien ou non de l'aide accordée, en fonction de la conformité avec le projet présenté.

Article 10: Attribution de la subvention et versement

Un projet de délibération argumenté sera présenté à l'Assemblée générale de l'OPLB d'octobre 2025, qui prendra position sur chacune des demandes exprimées, de manière ferme et définitive.

Les candidats seront informés des résultats de l'Appel à projets courant octobre 2025.

Le versement de l'aide financière sera globalisé par établissement et effectué en une seule fois, après présentation des justificatifs relatifs à chaque projet, conformément aux dispositions de l'article 11.

Article 11 : Justificatifs à fournir

Le porteur du projet devra fournir dès que possible après réalisation du projet et au **plus tard pour le 26 juin 2026 :**

 le formulaire bilan dûment complété (ce formulaire sera envoyé avec la notification de l'aide accordée après l'AG de l'OPLB d'octobre et sera téléchargeable sur le site internet de l'OPLB); EEPren diru laguntzak proiektuaren finantzaketa-falta osatuko du, autofinantzaketa eta gainerako finantzaketak gehitu ondoren, betiere araudi honen 7. artikuluan zehaztutako mugarekin.

9. artikulua: Hartzedunen betebeharrak

Proiektu deialdi honen bidez dirulaguntza izaten dutenek ondoko betebeharrak dituzte:

- esleitua zaien dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza hori onartutzat kontsideratuko da, ikastetxeko zuzendariak, laguntza horren baieztapena izanetik 15 egun pasa-eta ez badu kontrako iritzirik jakinarazten;
- dirulaguntza baliatzea, finkatuak izan diren helburuak betetzeko;
- lagundu proiektuaren komunikazio euskarrietan EEPren sustengua adieraztea (afixetan, esku orrietan, prentsa harremanetan,...);
- antolatu ekintzak bere ardura bakarpean ezartzea, asurantza bat kontratatuz, EEPren ardura ez dadin engaiatua izan;
- ahal bezain laster abisatu datu aldaketa administratibo bat baldin bada (telefono zenbakia, helbide...);
- ahal bezain laster, proiektuaren gauzatzearekin zerikusia duen orden praktiko aldaketa ororen berri ematea, eta proiektu eramaileek kontrolatu gabeko faktoreen ondorioz (eragilearen aldaketa, horren ezin libratzeagatik, ateraldiaren tokiagatik, egutegiagatik...), EEPk kontuan har dezan emandako diru laguntza atxikitzea ala ez, aurkeztu den proiektuarekiko adostasunaren arabera.

10. artikulua : Dirulaguntza galdearen erabakia eta isurketa

Erabaki proposamen argumentatu bat aurkeztua izanen da EEPko Biltzar nagusian (2025ko sartzean), zoinek erabaki bat hartuko baitu eskaera bakoitzarentzat. Biltzar nagusiaren erabakia behin betikoa izaten da. Proiektu deialdiaren erabakiak 2025eko urrian jakinaraziak izanen dira.

11. artikuluan zehaztua den bezala, EEPk ordainketa bakar bat eginen du ikastetxeka, ikastetxeak aurkeztu dituen proiektu guzien justifikagiriak EEPri helarazi ondoan.

11. artikulua : Eman beharreko justifikagiriak

Proiektu eramaileak, ahal bezain laster, proiektua egin ondoan eta **2026ko ekainaren 26ko berantenik** helarazi beharko ditu:

- bilan txostena behar bezala osatua (txosten hau urriko EEPren Biltzar Nagusiaren ondoren emandako laguntzaren jakinarazpenarekin batera bidaliko da, eta EEPren webgunean deskargatu ahal izango da);
- proiektuari lotu faktura guziak;

- toutes les factures relatives au projet ;
- les documents justifiant les autres aides publiques accordées au projet.

L'ensemble des pièces justificatives (formulaire bilan, factures, notifications d'aides) sera examiné par le Comité technique et les services de l'OPLB au regard de la conformité et cohérence par rapport au projet et au budget initialement présentés.

Le montant de l'aide sera réajusté en fonction du coût réel du projet, en tenant compte de la hauteur de l'aide attribuée (maximum 70%) et dans la limite de l'engagement financier voté par l'Assemblée générale.

Article 12: Non-respect des obligations

Seront considérés comme manquement aux clauses établies les cas suivants :

- l'utilisation totale ou partielle de l'aide allouée pour l'organisation d'activités autres que celles ayant fait l'objet de l'affectation;
- de manière générale, le non-respect d'une disposition décrite dans le présent règlement.

Tout cas de manquement tel que décrit ci-dessus entraînera le remboursement de l'aide versée auprès de l'OPLB.

Article 13 : Règlement des litiges

En cas de litige dans l'application du présent règlement, seul le Tribunal Administratif de Pau sera compétent. proiektuari lotu beste dirulaguntza publikoei dagozkien agiriak.

Batzorde teknikoak eta EEPko zerbitzuek, justifikagiri dirulaguntza guziak (bilan txostena, fakturak, bereziki jakinarazpenak) aztertuko dituzte, hastapenean proiektuarekiko aurkeztu eta aurrekontuarekiko den araberakotasuna eta koherentzia.

Dirulaguntza, proiektuaren kostu errealaren araberakoa izanen da, Biltzar nagusiak erabaki dirulaguntzaren heina (% 70 gehienik) kontuan hartuz eta bozkatu diru-kopurua gainditu gabe.

12. artikulua: Betebeharrak errespetatzen ez badira

Ondoko kasuetan kontsideratua izanen da betebeharrak ez direla errespetatuak izan:

- eman dirulaguntza osoki edo zati batean beste aktibitate batzuen antolatzeko baliatua baldin bada;
- orokorki, araudi honetan finkatu neurri bat errespetatua ez bada.

Artikulu honetan zehaztu puntuak ez badira errespetatuak, eragileak dirulaguntza itzuli beharko dio EEPri.

13. artikulua: Auzien zuritzea

Hitzarmen hau aplikatzean auzirik agertuz gero, Paueko Administrazio Auzitegia bakarrik izanen da eskuduna.